

# ZENBAT MIXERIA...

Imanol Miner Aristizabalo

**A**zken urteetan euskararen inguruko mezu positiboegiak hedabideetan zabaldu izanak euskararekiko kezka epeltzea eta gizartean euskaldunon arduragabekeria nagusitzea eragin du, nafar gobernuko agintarien erasoek eta Garzon superepailearen neurriek ordea euskara, euskalgintza eta euskaldunon eskubideenganako arreta piztu dute eta ez da gutxiagorako. Baina Nafarroa eta Madrileraino joan gabe, gure herrian bertan euskara, euskalgintza eta euskaldunon eskubideen inguruan bada hainbat mixeria eta horrek ez gaitu hainbeste kezkatzen. Lau urte dira unibertsitate ikasketak bukatu nituela eta geroztik zintzo-zintzo euskaldunon elkartean jardun dut lanean. Baina kitto, amaitu ditut Lau Haizetarako koordinazio eginkizunak eta nire osasunari mesedegarriago izango zaizkion eginkizunetan murgilduko naiz aurrerantzean.

Aspaldian ikasia dut kontu txarrak barruan gordez gero usteldu eta ondorio txarrak eragiten dituztela norberaren osasunean; idazlan honetan barruak hustuz nire kezkek irakurle zaituztedan horiekin konpartituko ditut, kanpora ditzadan beraz gehiago luzatu gabe:

Egia da, ni ere herri honetan azken hamar urteotan euskalgintzaren aurrekaldeko lehen lerroetan jardun diren beste asko bezala nekatu egin naiz: Zenbait lankideren arduragabekeriaz, ekonomi baliabideen faltaz, adinean nagusiago direnen babes urriaz, bizkarra babestu gabe jarduteaz, teorian 'bai, zurekin ados nago' eta praktikan 'ez', 'baina' eta gisakoak entzuteaz, eztabaida antzuetaz, diskurtso zatikatzaileez inguratuta egoteaz, gezurrezko nazio baten eraikuntza baino suntsipena denaz, sormenaren gabeziak eragindako imitazio merkeekin eta orobat bakarrik jarduteaz nekatu egin naiz. Euskalgintzan jarduteko motibazioan galera haundia izan dut azken ikasturtean eta Txepetxen teoria ezagutzen duzuenok badakizue horren ondorioak zeintzuk diren. Hamaika urte badira euskalgintzako konfuetan hasi nintzela eta azken lau urteak oso intentsiboak eta intentsoak izan direnez, indarrez ahul aurkitzen naiz orain; osasun kontuak ere alde batera utziak ditut eta horiei heldu behar diet lehentasunez. Poliki-poliki beraz azken urteetan aparkatuta edukitako egitasmoei heldu eta bide berrietan barrena abiatuko naiz.



Lehenengo aitormena egin ondoren, hona bigarrena: Idazlan hau beste luzeago baten atal desberdinen pasarteekin osatu dut. Idazlan horretan gai hauek eta beste batzuk jorratu ditut euskalgintzari errepaso bat emanez eta irtenbideen gainean hausnartuz; plazer duenak eskuragarri izango du oporren bueltan, eskatu eta emango zaizue. Datozen lerrotan urte guzti hauetan ikusi eta nire buruan leku gehiegi kentzen didaten euskalgintzako zenbait mixeria elkarren segidan kanporatuko ditut beraz:

Euskalgintzak urrats ugari eman ditu herrian azken mende erdian: 50etan Ereintza Elkartea, 60-70etan ikastolak sortu ziren, segidan gau-eskolak eta euskaltegiak, 80etan Euskal Herrian Euskaraz lehenik eta Xenpelar Bertso Eskola geroago eta 90etan Lau Haizetara Euskaldunon Elkartea, Lau Haizetara Aldizkaria, Oarso Telebista eta euskalgintzaren gunea sortu dira azkenik. Maiz pentsatu izan dut, euskaldunon elkarteak Ereintza Elkartearen baitan edo gutxienez bedeinkazioarekin etenik gabe sortua behar zuela batetik eta euskarazko hedabideak (aldizkaria eta telebista) euskaldunon elkartearen sendotu ondoren sortu behar zirela baina errealitateak beste bide batzuk hartzera behartu zituen ordu hartan; batzuk eta besteek esparrua jorratuz, gaur-gaurkoz gure herriko euskalgintzak ia osagai guztiak ditu: Esparru desberdinetako euskaltzaleak, ikastetxeak, euskaltegiak, hedabideak, kultur elkarte desberdinak, salaketa eta aldarrikapen talde bat eta euskaldunon elkarte bat ez dira edozein herritan aurkitzen; gure herrian erakundeak sortzen espezialistak gara, denetik daukagu, gero zein egoeratan daukagun... hori beste kontu bat da; Ijuka, salatzen eta sesioan aritzeko 'estratega' handiak daude erakunde gehienetan; elkarrizketa, negoziazio, administrazio eta gestio egokiak egiteko kalitatezko militante/profesionalen eskasia berriz nabarmena da. Erakundeak sendotzea, kudeaketa lan txukun bat egitea, elkartasunean, berdintasunean eta osagarritasunean jardutea lehentasuntzat izan dugunok gutxiengo izaten jarraitzen dugu; ziur aski ez dugu beti asmatu izan, baina sailu izanaren arrotasuna eta satisfazioa gurekin daramagu.

Gure hizkuntz komunitateko elementu erreferentzialak oraindik behar bezala finkatu gabe daukagu: hizkuntzari dagokionean, euskalkia bera bere doai, gatz eta piper guztiekin galtzear daukagu. Iraganeko euskaldunen memoria ikertu gabe, azken hamarkadetako euskaltzaleen lekukotasunak jaso gabe, ikastetxeetan behar bezalako trasmisio lan bat egin ahal izateko bitartekoak sortu gabe, honela gabiltza eta horrela dihoakigu.

Trasbertsalizazio politikoa edo bestela esanda, euskara eta euskaldunon politizazioa gainditu gabeko

ikasgaia da eta gure hizkuntz komunitateko zatiketa bultzatu eta belaunaldi nagusi eta gazteen arteko etena gaiztatu besterik ez du egin azken hamarkadan. Urrutira joan gabe, Lau Haizetara euskaldunon elkartearen sorreran euskaltzale beteranoengandik ezagututako babes falta eta esparru jakinetatik jasotako erantzun ozpinak eta jarrera hotzak (salbuespenak salbuespen) horren adierazgarri dira. Herriko eta eskualdeko euskaltzale gazteen eskuetatik sortutako hedabideak esate baterako, Lau Haizetara Aldizkaria lehenik eta Oarso Telebista beranduago bere garaian erabat baldintzatuta sortutako egitasmoak izan dira eta gogotik ordaindu zuten egitasmo hauek errealitate sendo bilaka zitezen aritu ziren lankideek.

Herriko euskalgintzan trasbertsalizazio politikoa gainditu ez izanak beraz Lau Haizetararen kasuan, euskaldunon elkarte ahul abiatzea eragin zuen. Euskaldunon elkarte ahula izateak hiztunen hizkuntz komunitatearen kontzientzia hartzea eta egituratzea eragotzi du eta hizkuntz komunitateak desegituratuta jarraitzeak eragina izaten jarraitzen du plano desberdinetan: Lau Haizetararen baitan lankide eta bazkideen artean gutxiagotasun konplexuak, ezintasunak eta prekaritatea eragin ditu. Elkartetik sortutako egitasmorik sendoenak baldintzatuta sortu dira, mesfidantzez inguratuta, babes eskasarekin, laguntza ezin urriagoekin eta arestian esan bezala horren adibide garbiak Lau Haizetara Aldizkaria eta Oarso Telebista dira.

Euskalgintzaren baitan behar bezala kontsolidatu gabeko esparru berri xamar batean jardun dut beraz azken zazpi urteetan, herriko euskaldunon elkartearen



alegia. Lau Haizetaran euskaltzale gutxi gabiltza eta ez prexixamente beharrezko genituzken baldintzetan: baldintza kaxkarreko lanlekuak eta giza eta diru baliabide urriak eguneroko kontuak dira. Elkartean lau urte hauetan barrena, erritmo desberdinean jarduten duten pertsonak aritu dira baina egia aitortzekotan, beharrezko erritmoa iraunkorki jarraitzeko eta babesteko prest dagoen pertsona gutxi ezagutu dut alboan. Elkartean barruan bezala, orohar herriko euskaltzaleen artean formazio falta handia dago eta jakinmina ia ez da existitzen. Harrobirik ere ez dugu eta euskaltzale gazte gutxi datoz atzetik eta datozenak politika erakundeetan lerratuta horrek dakarren lastre guztiarekin.

Elkartetik kanpora begira jarrita, trasbersalizazio politikoak eragindako gizarte zatiketak 'euskara = politika' ideia elikatzen du eta ondorioz hizkuntz komunitatea trinkotu gabe egotea eragin du bere baitako nahiz orbitako hiztunen motibazio, ezagutza eta erabileran zuzenki eraginez: eragileen arteko komunikazioa zaildu du, euskaltegiako matrikulazio kopuruak behera doaz, batxilerrera eta unibertsitaterako urratsa ematerakoan ikasketa ertainetako D ereduko matrikulazioetan oraindik galera gertatzen da, euskarazko hedabideek irakurle eta ikus-entzulego urriak dituzte, literatura eta musikaren kontsumoa ere urria da, kontzertu eta antzerki emanaldietan jende ez da sobera izaten; eta txorroskilo lanetan hasi naizenez, plano politikoan ere hizkuntz komunitatea trinkotu gabe egoteak euskara erabakiguneen erdigunean baino orbitan egotea eragin du, esate baterako Miguel Buen alkatea ez da euskalduna eta bere inguruko zinegotziek ez bezala ez du ikasteko borondaterik erakutsi alkatetzan daramatzen urteetan. Honek zer pentsatua eman beharko liguke. Maizegi euskararen egoerak nabarmen hobera egin duenaren uste petralak kontsolatzen gaitu... Eta bienbitartean besterik sinetsi nahi badugu ere, hizkuntz ordezkatze prozesuak oraindik ere gaztelaren 'mesedetan' aurrera darrai.

Izan ere 70 / 80 hamarkadetan ataskatuta geratu da gure herriko euskaltzale eta eragile nagusien buruetan bueltan dabilen diskurtsoa eta praktika gero halakoa izaten da. Dikotomia eta zatiketaren oinarritutako diskurtsoak eragiten du egun bizi dugun giro aldrebesatua, ezintasunak eta gutxiagotasun konplexuak jotako diskurtso agortu bera erakunde guztietan aurkitzen da: euskaldunon elkarteak berau gaintzeko eginahalak egin baditu ere, bere baitako kide urrien artean ere maiz agertzen dira diskurtso zaharraren arrastoak. Elkartetik kanpo ordea trasbersalizazio politikoaren eraginez ziur aski, erabat hedatuta dago diskurtso agortua; erakunde politikoaren jardunean islatzen da nabarmenen, erakunde hauetan dabilzan euskaltzaleen diskurtsoa gatazka kabletan eta ardura-



ren besteenganatzean eraikita baitago. José María Sánchez Carriónnek 80ko hamarkadatik hona esparru honetan egindako ekarpenak ezinbesteko erreferentzia dira gatazka klabeak gaintu eta irtenbideetan barrena abiatzeko. Halaber gure inguruan eta mundu mailan gizarte mugimendu berriak (gure herriko kristau komunitateetatik hasi, AHTren aurkako taldeak, Itoitzeko urtegiaren aurkakoak, presoekiko elkartasun taldeak, Zapatisten oldartzea eta Praga, Seattle eta gurean Miarritzeko bilkuretaraino) ernaltzen ari dira; ideologiak gaintuz, berdintasuna, aniztasuna, begirunea eta osagarritasuna bezalako ideien logikaren arabera jardutera ausartzen ari diren erakunde hauek bat egiten dute hainbat puntutan euskara / euskaldunon elkarteek 80-90 hamarkadetan nekez baina tinko abiatutako bide berriekin. Etorkizuna asmatzea zaila bada ere, gaitasun eta ondorio imajina-ezineko gertakari handi baten lekuko eta protagonistak garela pentsatzen dut, baina hori denborak erranen du.

DEBILE PRINCIPIUM MELIOR FORTUNA  
SEQUATUR

(Bernard Etxepare 1545)